


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 igo ziren 2013ko apirilean aurreko hilaren aldean

2012ko apirilaren aldean ez dago aldaketarik (%0,0) eraikuntza kostuetan

2013ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 gehitu zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan aldaketarik ez, %0,0, EUSTATEN datuen arabera.



2013ko apirilean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,4 garestitu dira.

Apirilean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,5eko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,1eko jaitsiera. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintza lehengaien kostuak %0,1 jaitsi dira eta Obra Zibilarenak %1,5.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Makineria (%2,6), Ez-metalezko industria (%2,5) eta Material elektrikoa (%1,1) nabarmentzen dira, besteren artean. Urteko prezioetan (2013ko apirila, 2012koaren aldean) jaitsierak izan dituzte Petrolioa fintzearen (%-6,9), Metalurgiaren (%-4,2) eta Ez-metalezko mineralen erauzketaren (%-1,4) lehengaiak.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO APIRILA(p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,5	0,3	0,0	1,1
ERAIKINAK	103,3	0,4	0,2	1,1
OBRA ZIBILA	105,1	-0,1	-0,9	1,1
LEHENGATIA	103,5	0,4	-0,3	1,1
ERAIKINAK	103,2	0,5	-0,1	1,1
OBRA ZIBILA	105,5	-0,1	-1,5	1,2
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua